



Finantza Politikako zuzendariaren Instrukzioa, 2018ko azaroaren 7koa, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzari publizitate-kanpainak jakinarazteko epeei buruzkoa.

Ogasun eta Ekonomia Sailak du borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen (BGAE) gaineko eskumena. Zehazki, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, sail horri dagokio borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko araudia betetzen den kontrolatu, gainbegiratu eta ikuskatzea, eta, horretarako, behar diren neurriak har ditzake; horrez gain, mendeko zerbitzu eta organoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak ematea ere sail horren eginkizuna da.

Bestalde, BGAE-en jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak 13.6 eta 13.7 artikuluetan ezartzen duenez, edozein publizitate, hedatu baino lehen, Ogasun eta Ekonomia Sailari jakinarazi behar zaio.

Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Federazioak BGAE-ekin zerikusia duen gai bat planteatu du. Hain zuzen ere, Finantza Politikako Zuzendaritzari eskatu dio zehatz ditzala gehiago halako erakundeen publizitate-kanpainetarako epeak, alferreko itxaronaldiak saihesteko eta segurtasun juridiko handiagoa izateko.

Horrenbestez, egokitzat jo da instrukzio honetan ezartzea zer irizpide aplikatu behar dituzten borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen sektoreak, organo ikuskatzaileak eta haren zerbitzuek.

Ondorioz, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuan jasota dauden eskumenen arabera,

instrukzio honen bidez Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioak aurkeztu duen gaiari buruzko irizpideak ematen dira:

Lehenengoa: publizitate-kanpainetarako egitasmoek zintzo islatuko dituzte iragarkiak, testuak, kartelak, liburuxkak, irrati-iragarkiak, filmazioak edo beste edozein bide edo euskarri, aukeratu den hedabidearen arabera. Halaber, egitasmo horiek beren lurralde-eremua zehaztuko dute, baita iraunaldia ere.

Bigarrena: ez dira publizitate-jardueratzat hartuko BGAE-ek beren kideei eta onuradunei egiten dizkieten jakinarazpenak, baldin eta erakundearekin zerikusia duten gaiei buruzkoak badira eta bazkide berriak erakartzeko asmorik ez badute.

Aldiz, publizitate-jardueratzat hartuko dira —eta, ondorioz, Finantza Politikako Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio— BGAE-ek beren bazkideei egiten dizkieten jakinarazpenak, baldin eta beste BGAE batean dituzten eskubide ekonomikoak mobiliza ditzaten eskatzeko eginak badira.

Hirugarrena: publizitate-jarduera legezko edozein bitarteko edo euskarri erabilita egin daiteke, baita sare sozialak erabilita ere.

Laugarrena: aldizkako kanpainak eta askotan errepikatzen direnak behin baino ez zaizkio jakinarazi behar ikuskatzaileari, edukia aldatzen ez bada. Kanpaina berbera errepikatuz gero, gutxienez, errepikapen horren berri emango zaio Finantza Politikako Zuzendaritzari.

Bosgarrena: Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak 15 eguneko epea izango du kanpaina zuzentzeko eskatzeko. Epe hori erakundeak publizitate-kanpaina benetan jakinarazi duen egunetik hasiko da zenbatzen; hau da, administrazio-erregistroaren sarrera-zigiluan agertzen den egunetik. 15 egunak igaro eta Administrazioak ez badu erabaki espresurik eman, kanpaina heda daitekeela ulertuko da, baina inoiz ere ez epe hori baino lehenago.

Administrazio-errekerimendurik badago, adierazitako epea eten egingo da; behin eskatutako aldaketak kanpainan jasorik, hura birbidali, eta berriro hasiko da zenbatzen epea.

Seigarrena: aurreko apartatuan esandakoarekin loturik, Ogasun eta Ekonomia Sailak ahalmena izango du BGAE-ei eskatzeko BGAE-en publizitateari buruzko araudian ezarritakoa betetzen ez duen publizitatea zuzendu edo kentzeko, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen araudiari jarraituz erakunde horiei eskatu ahal zaizkien erantzukizunak.

Zazpigarrena: jakinarazpenen ondorioetarako, instrukzio hau Ogasun eta Ekonomia Sailaren web-orrian jarriko da, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioari jakinaraziko zaio.

Zortzigarrena: instrukzio honek 2012ko urriaren 17an publizitateari buruz eman zena indargabetzen du, eta sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ezertan eragotzi gabe aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera egin behar diren jakinarazpenak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 7a.

Izpta. / Fdo.: Fco. Javier Arnaez Arrecigor
DIRECTOR DE POLÍTICA FINANCIERA
FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARIA